



## **I. MAILA - Harrera (4 urtetik 7ra)**

Maila honen helburua da txikiei musika hurbiltzea, haiengan musikarekiko eta artearekiko sentiberatasuna pizte aldera, jolas giroan eta estimulazioa landuz.

- Musika eta mugimendua (4-5 urte)
- Musika eta mugimendua eta Instrumentu-tailerra (6 urte)
- Musika hizkuntzaren hastapena (7 urte) – instrumentuaren hastapena (7 urte)
- 

## **II. MAILA – Hastapena (8 urtetik aurrera eta adin mugarik gabe)**

Maila honetan instrumentua eta ahotsa dira musika-garapenaren ardatz nagusiak. Musika hizkuntza euskarri teorikoa da, musika irakurtzen eta idazten ikasteko. Halaber, instrumentu-edo koru taldeetan praktikatzen hasten dira.

- Musikaren hizkuntza (6 modulu) / Abesbatza / Instrumentu-taldea / Instrumentuak\*\*

\*\* Instrumentuak: bakarkako kantua, biolina, biola, biolontxelo, kontrabaxua, flauta, klarineta, oboea, fagota, saxofoia, tronpa, tronpeta, fliskornoa, tronboia, tuba, bonbardinoa, perkusioa, bateria, harpa, txistua, trikitia, panderoa, alboka, txalaparta, dultzaina, Galiziako gaita, pianoa, eskusoinua, gitarra, gitarra elektrikoa, baxu elektrikoa, teklatuak.

## **III. MAILA – Finkatzea**

Musikaren ezagutzan sakondu nahi duten ikasleei zuzenduta dago: instrumentuak eta ahotsa, teoria eta taldekako musikaren lanketa.

- II. Mailako instrumentu guztiak gehi organoa
- Konposaketarako teknikak eta Musika moderno eta klasikoaren oinarri teorikoak
- Koru, instrumentu-taldeak eta konboak

## **IV. MAILA – Lehentasunezko jarduera**

Maila honetan ikasleen interesak, dedikazioak eta gaitasunak-banaka nahiz taldeka- adieraziko dute ikasleen eboluzioa.

- III. Mailako instrumentu guztiak
- Konposaketarako teknikak eta Musika moderno eta klasikoaren oinarri teorikoak
- Koru- eta instrumentu-taldeak